



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

II. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Auto-errealizazioak auto-
esplotazioa esan nahi duenean**

Igor Rezola

150-157 or.
<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.01.20>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



UPV EHU



Auto-errealizazioak auto-esplotazioa esan nahi duenean

Rezola Iztueta, Igor.

Arte eta Teknologia Saila, Arte Ederren Fakultatea (UPV/EHU)
igorrezola@hotmail.com

Laburpena

Azken hamarkadetan lanaren munduan aldaketa esanguratsuak jazo dira. Teknologiaren garapena eta deslokalizazio prozesuen ondorioz, mendealdean hegemonikoa izan den lan eredu industrialaren gainbehera gertatu eta gero, lan eredu berriak jarri dira martxan. Alienazioaren arrazoia zen fabrikako lanean, langileari ukatuak zitzaizkion malgutasuna, autonomia, kreatibitatea eta lanaren bitartez auto-errealizatzeko aukera, artistaren lan eta bizimoduaren ezaugarriekin bat egiten zuten orduan. Artistak, bere lanaren bitartez, auto-errealizatzeko parada zuen. Fabrikako langileari ukatuak zitzaizkion ezaugarri haiek dira orain ordea, ekonomia-merkatuan plusbalioa sortzen dutenak. Zentzu horretan, artistaren lana eta bizimodua eredugarri suertatzen dira neoliberalismoarentzat. Horregatik, ekonomia berrian, langileak alienatutako lanetik libratu eta lanaren bitartez auto-errealizatzeko modua duela sinestarazi nahi da, baina errealitateetik urrun, hau ondoez berrien biktima suertatzen da.

Hitz gakoak: lana, artea, prekarietatea, subjektibitatea, auto-errealizazioa, auto-esplotazioa.

Abstract

During the last decades there have been significant changes in the world of work. As a result of technological development and relocation process, which has been dominant in the West after the decline of the industrial model, the new models of work have been launched. In the alienated work of the factory, workers were denied the flexibility, autonomy, creativity and self-realizing. At that time were characteristic of work and the way of life of the artist. The artist could self-realize through work. Those characteristics that were denied to the factory worker, are now those that generate surplus value in the market economy. In this sense, it is the artist's work and way of life the model of neoliberalism. For that reason, in the new economy, they want to make believe that the worker has the possibility to be free of alienated work and can self-realize through work, but far from reality, is now a victim of new discomforts.

Keywords: work, art, precariousness, subjectivity, self-realization, self-exploitation.

1. Ikerketaren helburua

Artista, bere lan eta bizimoldearengatik, neoliberalismoaren langile eredugarria bihurtu dela esaten da. Horren arrazoia, ofizioak erakusten dituen ezaugarrietan aurkitu daiteke. Artista, malgutasuna eta autonomiaren adibidea da. Bera da bere nagusia, egiten duen lana pasioz bizi du, bere lana bizitza eta bizitza bere lan bihurtzen ditu, eta jarduera horren bitartez auto-errealizazioa du helburu. Ordea, artistaren lan baldintzez eta bere bizitzan eragiten dituen ondorioez baino, bestelako kontuei buruz gehiago hitz egiten da hedabideetan eta gizarte mailan orokorrean. Mintzagai denean berriz, errealitatearekin apenas zerikusirik duen mitifikatutako bizimolde eta estereotipatutako figura bati egiten zaio erreferentzia. Hau horrela izanik, beste horrenbeste gertatzen dela pentsatu daiteke, artistaren figura eredutzat hartzen duten produkzio modu

berriek saldu nahi duten ekintzaile kreatiboaren irudiarekin. Ikerketa honen helburua, praktika artistikoa abiapuntu izanik, lanak auto-errealizaziorako aktibitate gisa sortzen duen erakargarritasunaren inguruan sakontzea da, lana auto-errealizazioaren ideari lotuta agertzen denean, promesa hori betetzen ote den hala ez ikusteko.

2. Sarrera

Adam Smithentzat, lana¹ aberastasuna sortzeko bitarteko bat besterik ez zen (Méda, 1998). Karl Marxentzat berriz, lanak bestelako funtzio bat izan behar zuen. Azken honen iritziz, oinarritzko beharrak ase ostean, gizakiak bere existentzia ahalik eta eroso eta atseginen egiteko, natura eraldatu eta honi objektuak gehitzen hasten da, mundu propio bat eraikitzeari ekiten dio, artifiziala, naturatik aparte baina honi lotua aldi berean. Ingurua gizatiartzeko beharra agertzen duen izaera sortzailea da hain zuzen ere Marxen aburuz, gizakia beste espezieetatik desberdintzen duena. Bere jarduera espezifikoak lana da, eta hau medio, natura eraldatzearekin batera, gizakiak bere burua eraldatzen du (Marx, 2017). Lanaren bitartez produzitzen da, eta zentzu horretan, lanaren produktua da. Hortaz, auto-errealizazioa posible egiten duen jarduera dela esan daiteke lana, eta puntu horretan aurkitzen da hain zuzen ere bere potentzialtasuna eta aberastasuna:

“Sólo a partir de ese proceso productivo el hombre puede realizar su propia esencia y por tanto es parte constitutiva de su ser que se mantenga en esa actividad productiva por medio de la cual se autorrealiza.” (Fromm, 2001).²

Kapitalismoaren lehentasuna etenik gabeko ondasunaren produkzioa eta metaketa denez, lana, gizakiaren garapenerako jarduera nagusia izan ordez, hau ukatzen duen aktibitatea bihurtu da. Auto-errealizazioaren ideia, gauzatu ezin den promesa bilakatzen da orduan, eta alde hau izan zen hain zuzen ere Marx-ek gogorki salatu zuen aspektuetako bat.

Fordismoa bezala ezagutzen den fabrikako lan industrialaren hegemoniak, lana eta bizitzaren arteko zatiketa ezarri zuen. Orduetegi eta toki jakin baten barruan, langilea bere gizatasunetik bananduz, lan mekaniko, estandarizatu, errepikakor eta monotonoa egitera derrigortua izan zen. Produkzio katean makinaren pareko bihurturik, haren subjektibitateak, intelektualtasunak, sentsibilitateak eta sormenak ez zuten tokirik, eta ondorioz, langilearen benetako bizitza fabrikako pareta eta ordutegietatik kanpo hasten zen. Derrigortutako jarduera arrotzaren forma hartzen zuen ogibideak, gizakia fisikoki zein espirituali degradatzen zuen. Kapitalistaren beharrak asetzeko tresna izateaz gain, langileak alienatutako lanaren ondorioak pairatzen zituen:

“(...) el trabajo es externo al trabajador, es decir, no pertenece a su ser; en que en su trabajo, el trabajador no se afirma, sino que se niega; no se siente feliz, sino desgraciado; no desarrolla una libre energía física y espiritual, sino que mortifica su cuerpo y arruina su espíritu. Por eso el trabajador sólo se siente en sí fuera del trabajo, y en el trabajo fuera de sí. Está en lo suyo cuando

¹ Kapitalismoaren sorreratik, emakumezkoek egin beharra izan duten lana, eta oraindik ere nagusiki egiten jarraitzen dutena, zaintzak eta lan domestikoari lotutakoa, ekonomia-merkatuan baliorik produzitzen ez duenez, errekonozimendu sozialik gabea bilakatu da, garrantzia kendu zaio, ikusezin egin da, eta lantzat kontsideratua izateari utzi zaio. Baina hau ez da edozein lan. Oinarritzko lana da, garrantzitsua, bizitza sortu eta zaintzeaz arduratzen den lana da. Kapitalismoak ez luke funtzionatuko hau gabe. Ez dago produkzioerik erreproduktioerik gabe, eta zentzu horretan, emakumezkoen lana, eredu produktibo kapitalistarentzako ezinbestekoa da (Federici, 2004). Erreproduktioa ere lana da, eta inolako zalantzarik ez dago beraz, lana ez dela ekonomia-merkatuan balioa sortzen duen soldatapeko aktibitatea soilik, baizik eta haratago doala. Puntu hau argi utzi ostean ordea, irakurketa errazago egiteko intentzioz, artikulua honetan lanaren kontzeptua, enplegua edo ordaindutako lanari erreferentzia egiteko erabili dela ohartarazi nahi da.

² Artikuluan zehar aipatzen diren zitak, irakurritako liburuen jatorrizko hizkuntzan uztea erabaki da.

no trabaja y cuando trabaja no está en lo suyo. Su trabajo no es, así, voluntario, sino forzado, trabajo forzado. Por eso no es la satisfacción de una necesidad, sino solamente un medio para satisfacer las necesidades fuera del trabajo. Su carácter extraño se evidencia claramente en el hecho de que tan pronto como no existe una coacción física o de cualquier otro tipo se huye del trabajo como de la peste.” (Marx, 1985).

Industrializazioarekin, ekonomiaren menpeko suertatzen zen langile fordistaren ereduari kontrajarrita, salbuespen bat eman zen ordea, eta salbuespen hura, artista bohemioa izan zen. Segidan ikusiko dugun moduan, lana eta bizimoduari eman gura zion zentzuarengatik, artista bohemioa alienatutako langilearen iruditik urruntzen zen.

Industrializazioaren sorrerarekin batera, artea egin eta arteaz gozatzeko modu desberdinak jaio ziren. Batetik, ekonomia-merkatuaren arauen menpeko eta kapital ekonomikoa helburu zuen arte komertziala zegoen. Bestetik berriz, artearen autonomia eta purutasuna defendatzen zuen eremua, non kapital sinbolikoa zen benetako balioa (Bourdieu, 2010). Artearen eremu autonomoa eta artista bohemioaren figura, kapitalismoaren eredu produktibotik kanpo, etekin ekonomikoaren aurkako logikaren bitartez eraiki ziren. Artista komertziala enkarguaren morrontzapean aurkitzen zen bezala, artista bohemioak aske lan egiten zuen. Bere jardueraren bitartez espresatzen zen. Lanak izaera gizatiarra garatzeko aukera eskaintzen zion, eta ondorioz, lana medio, auto-errealizazioaren ideiak posible zirudien. Bohemioak, egiten zuen lana maite zuen. Pasioz bizi zuen hura. Lana bere bizitza bilakatzen zen, eta alderantziz, bata bestearekin nahastu eta banaezin suertatzeraino. Sorkuntza, fantasia, txantxa eta probokazioa, edaria, maitasuna eta festarekin uztartzen zituen. Artea, objektu artistikoak produzitzea baino zerbait gehiago bezala planteatzen zen orduan, bizitzeko modu bat bezala. Bizitza bera arte bihurtzea, horixe zen artistaren xedea:

“(…) convertir el arte de vivir en una de las bellas artes (...).” (Bourdieu, 1995).

Helburuak desberdinak izan arren, ekonomia eta artearen eremuen arteko talka, ekidin ezina zen. Artista bohemioak, dirua helburu zuen bizi modu egonkor bezain aspergarriari muzin egin, eta prekarietatean murgildu arren, sorkuntza, malgutasuna eta autonomia medio, bizitza intentsitatez bizitzeko apustua egiten zuen. Lan eta bizi eredu hegemonikoaren aurrean, erresistentzia eta miseria materialean oinarritzen zen jarrera heroikoarekin lotzen zen. Azken finean, artista bohemioaren figurak, burgesiak ezarritako gustu eta baloreen kontrako erreakzioa edo alternatiba izan nahi zuen.

3. Muina

60-70. hamarkadetatik aurrera, mendebaldeko herrialdeetan fordismotik postfordismora gauzatzen hasi zen aldaketarekin batera, lana eta artearen arteko mugak ere diluitzen hasi ziren. 68. eneko maiatzaren testuinguruan, ikasle mugimenduak eta langileriak, kultur esparruko intelektual eta artistekin batera burututako altxamendua, kapitalismoak ezarri zuen lan eta bizimoldearen aurkako espresioaren adibidea izan zen. Langileriaren borrokei esker, ordu arte lortutako lan baldintza duinagoak eta kontsumorako aukerak, ez zuten zoriontasunaren promesa errealtate bihurtu eta egunerokotasunaren ondoeza baretzea lortu. Alderantziz. Bizitza, monotono, aspergarri eta hutsal bilakatu izana leporatzen zitzaion kapitalismoari. Kontsumoaren esparrua, edo antolatutako aisia³, lanaren esparruaren zati osagarria baino ez zen. Espektakuluaren Gizartean (Debord, 2010), bata zein bestea gizakiaren alienazioaren arrazoi ziren. Horregatik, kritika ez zen ordu arte langileriak egin zuen moduan, lanaren esparrura bakarrik zuzendu. Bizitzeko modua bere osotasunean zen zalantzan ipini zena, egunerokotasuna azken finean, eta zentzu

³ Internacional Situazionistak espektakuluaren aisia eta benetako aisiaren arteko bereizketa egin zuen. Lehena alienatzailea zen bitartean, bigarrena iraultzailea zen (Marcus, 2011).

horretan, kritika totala izan zen. Borroka hartan, “kritika artista” bezala ezagutzen denaren aldarrikapenek, hau da, autonomia, malgutasuna, kreatibitatea eta auto-errealizazioaren aldeko aldarrikapenek, indarra hartu zuten, alegia, artista bohemioaren figurarekin bat zetozen ezaugarriak. Ezkerreko mugimenduek espero ez zutena gertatu zen baina. “Kritika artistaren” ekarpenak izan ziren, kapitalismoari espirtu berri bat eman, eta ondorengo urteetan sortu ziren lan ereduentzako lagungarri suertatu zirenak (Boltanski eta Chiapello, 2002) aurrerago ikusiko den moduan. Era berean, deslokalizazio eta automatizazio prozesuen ondorioz, lan industrialak bere hegemonia galdu eta lan inmateriala (Lazzarato eta Negri et al., 2006) bezala ezagutzen den produkzio modua, hau da, informazioa, ezagutza, ideiak, sinboloak, irudiak, harremanak eta afektuak produktibo bilakatu dituen, gailenduko zen mendebaldean.

Jarraian azalduko dugun bezala, prozesu horretan, mugimendu bikoitz baten ondorioz, artea eta lanaren arteko muga disoluzioa eman da (Jameson, 2002). Postfordismoan, alde batetik, kulturaren ekonomizazioa gauzatu da. Formazio akademikoa amaitu ostean, erabat indibidualista eta lehiakor den lan eremuan artistak karrera egin nahi badu bederen, deialdiak begiratu, proiektuak garatu, dosierak prestatu, bekak eskatu, tailerrak antolatu, hitzaldiak eman, formatzen jarraitu, erakusketak bisitatu, kontaktuak egin edo sare sozialetan egotea ezinbestekoa du. Artista garaikidearen lana ez da tailer edo estudioko lanera mugatzen bakarrik. Lana sortu, bilatu, aurkitu, gauzatu eta saltzearen ardura beregain erortzen da. Artea eta produkzio kulturala ogibide bilakatzen direnean, langileak lan egoera erregulatze, autonomo, *freelance*, mikroenpresa edo ekintzailearen forma hartzen du (Rowan, 2010). Artea eta kultur esparruko langilea, enpresa bat balitz bezala funtzionatzen hasten da, subjektu-enpresa edo norberaren enpresari bezala. Gaur subjektua, bere burua esplotatzen duen enpresa bihurtu da, edo beste modu batean esateko, neoliberalismoak langilea enpresari bihurtu du (Chul-Hang, 2016b). Merkatua lehian oinarritzen denez, bere interesen defentsa egin beharra du, existentziari ikusgarritasuna eman behar dio, kontaktuen sarea eraiki eta zaindu beharra dauka. Ekintzailearen irudia, lidertza, autonomia, kreatibitatea, ausardia eta arriskua bere gain hartu, eta jarritako helburuak arrakastaz lortzen dituen figurarekin erlazionatzen da.

Nozio hauei, industriari erreferentzia egiten dieten beste batzuk gehitu behar zaizkie, industria kulturalak edo industria kreatiboak esaterako. Kreatibitatearen kontzeptua, sekula baino presenteago aurkitzen da ekonomialarien diskurtsoetan. Ekonomiaren benetako motorra dela baieztatzen dutenen artean (Florida, 2010), kultura eta honekin batera artea, bere baitan balioa duen eremu gisa aintzakotzat hartu ordez, beste eremu batzuen mesederako, errekurso moduan erabiltzen da (Yúdice, 2002). Ikusi daitekeen eran, jatorri ekonomikoa duten kontzeptuen presentzia normalizatu egin da artea eta kulturaren esparruan.

Eta bestetik berriz, ekonomiaren kulturizazioa gertatu da. Fordismoan salbuespena izan zen subjektua, artista, konformagaitz eta bohemioa, postfordismoan, lan politiken inguruan ematen ari diren eztabaidetan langile eredu garri bezala erreferente bilakatu da:

“La mitología de los procesos de producción artística proyecta hoy la imagen de un estilo de vida metropolitano en el que el trabajo y la vida se desarrollan en el mismo lugar —en el bar o en la calle— y al que además se vincula la ilusoria posibilidad de poder gozar del placer de la musa. El pensamiento de la flexibilidad y la movilidad se remonta precisamente a esa tradición del inadaptado y (...) a aquella generación de artistas que intentaron huir del dictado moderno de la disciplina y el racionalismo.” (Von Osten eta al., 2008).

Honek, mundu eta iruditegia berriak sortzeko duen funtzioaz gain, bere lana pasioz bizi, modu autonomoan antolatu eta merkatuarekin harremanean jartzeko gaitasuna erakusten du. Horrenbeste maite duen lana, bere bizitza bihurtzen du artistak, eta bere bizitza bere lan. Postfordismoan asmatu diren lan eredu berrietan gauza bera antzeman dezakegu. Lana ez da jada espazio fisiko eta ordutegi jakin batzuen barruan gauzatzen. Dispositibo teknologiko berrien garapena dela eta, subjektibitatea produktibo bihurtu eta gero (Brea, 2008), eta lanak bizitza kolonizatu ostean (Negri, 1992), gaur inoiz baino lan gehiago egiten da (Crary, 2015). Egun, guztiz arrunta da ingurura begiratu ez gero, edozein tokitan eta edozein ordutan, jendea bere mugikorra edo ordenagailua esku artean duelarik lanean ikustea.

Artista bohemioaren lana eta bizimoldea, ekonomia berriaren lan baldintzak eta bizimoduak sortzeko inspiratzaile izan dira, eta *Google*, *Ebay* edo *Apple* bezalako teknologia berrien eta hedabideen sektorean ikusi daiteke bereziki aipaturiko eragina (Von Osten eta al., 2008). Lan eredu berrien esparruan eraikitzen

diren lantokiek artistaren estudioarekin antzekotasun nabarmena daukate (Florida, 2010). Itxura *cool*-a hartzen duten produkzio guneak, fordismoan lana eta bizitzaren artean lehen aurkitu zitezkeen mugak ezabatzeko pentsatutako espazioak dira. Beste gauza askoren artean, musika, dekorazioa, kafe makinak, jolastokiak edo atsedeen lekuekin batera, masajeak, yoga edo *mindfulness* bezalako zerbitzuak ere eskaintzen dira. Eta hori gutxi balitz, festa bera ere lantokira eraman da. *Before work* bezala ezagutzen den fenomeno modan da New York, Los Angeles, Paris eta Londres bezalako hirietan (Galafate, 2016). Lanean hasi aurretik, errutinarekin apurtu eta langileak motibatzekeo intentzioz, festarako aukera ematen zaie hauri. Hori bai, lantokia girotzeko DJ-ak kontratatzen dituzten arren, alkoholadun edariak zuku osasungarriengatik ordezkatzeko dira *healthy party* deituriko festa hauetan.

Produkzio sinbolikoa, artea eta kultur praktiken jardura izan bada tradizioz, orain, ekonomiaren eremuarentzako faktore garrantzitsu bat bilakatu da. Kapitalismo kulturalaren garaian (Brea, 2008), balioaren produkzioa desplazatua izan da. Merkantziak ez dira baloratzen jada produzitzeko behar diren lan ordu kopuruarengatik edo hauek daukaten erabilera balioarengatik, objektuari gehitzen zaizkion ezaugarri inmaterial edo sinbolikoengatik baizik (Boltanski eta Chiapello, 2002). Aspaldi ohartu zen enpresen mundua produktua produzitzeari utzi eta sekretua markak produzitzean zegoela (Klein, 2007). Esandakoari lotuta, ekonomiak gaur oso kontutan duen beste faktorea estetikarena da. Produkzio industrialaren bilakaerak, inoiz ez bezala, artea eta estetika bere egitean, kapitalismori izaera artistikoa eman dio. Munduaren estetizazioa, hain zuzen ere, kapitalismo artistikoa bezala ezagutzen denaren emaitza da (Lipovetsky eta Serroy, 2015).

Artea, ekonomia-merkatuaren aurrean erresistentzia edo eremu alternatibo gisa aurkezten zela aipatzen baguenen hasieran, eremuen arteko disoluzioak diferentziaren amaiera ekarri du. Ondorioz, lana eta auto-errealizazioaren nozioek aldaketa esanguratsua jasan dutela ikusiko dugu.

Botereak forma desberdinak hartzen ditu garaiaren arabera. Modernitatean, fabrika bezalako instituzio diziplinarioen bitartez, subjektuaren gorputza, gizarte modernoaren beharrak asetzeko diziplinatu zen (Foucault, 2002). Mugatzen zuen boterea edo gobernatzeko modua, kanpotik ezartzen zitzaion langileari debekua eta zigorraren bitartez. Gaur egungo gobernatzeko modua ordea, sofistikatuagoa da, ez da horren ikusgarria eta antzemateko zailago suertatzen da (YProductions, 2009). Autonomo, *freelance*, mikroenpresa edo ekintzaile forma hartzen duen langileak, beregain du auto-produkzioa eta auto-errealizazioaren erantzukizuna. Borondatezko hautua denez, ez dator lehengo eran bezala kanpotik ezarria, eta botereak langilearen askatasuna oztopatu, debekatu edo zigortu ordez, hau sustatzea bilatzen du, errentagarritasuna ateratzeko asmoz ondoren. Horregatik, neoliberalismoan, boterea baikor, ireki eta seduktore ageri da, horregatik autogobernatzearen praktikak, ustezko askatasunaren itxura agertzen du, eta horregatik auto-errealizazioaren ideia erakargarri suertatzen da (Chul-Hang, 2016b).

Prekarietatearen aldeko apustua, auto-errealizaziorako bide gisa batetik, eta lan eta bizimolde hegemonikoarekiko erresistentzia esparrutzat bestetik hartu baldin ba zitekeen iraganean, posizio hau da orain hegemoniko bihurtu dena. Langile autonomoa, indibiduala, malgua, prekarioa, lana pasioz bizi duena, motibatua, kreatibitatea produktibo bihurtzen duena, lana eta bizitza uztartzen dituen da preseski, merkatuari interesatzen zaion langile mota. Hain zuzen ere, ezaugarri horiengatik bilakatzen da artista neoliberalismoarentzat langile eredugarri:

“(...) son precisamente estas condiciones de vida y trabajo alternativas las que se han convertido de forma creciente en las más utilizables económicamente, puesto que favorecen la flexibilidad que exige el mercado de trabajo. (...) no sólo han sido resistentes y se han dirigido contra la normalización sino que también, al mismo tiempo, han formado parte de las transformaciones que han desembocado en una forma de gubernamentalidad neoliberal.” (Lorey et al., 2008).

4. Ondorioak

Langilearen subjektibitateak, intelektualtasunak, sentsibilitateak eta sormenak, ez zuten tokirik lan eredu fordistan. Ezaugarri hauek ordea produktibo bilakatu dira postfordismoan. Aipatutako langilearen izaera gizatiarrari lotutako ezaugarriak produzitzen ipintzean, lan mekaniko errepikakorretik aldendu eta ekonomia-merkatuaren ekoizpen moduak artearen eremuko ezaugarriekin bat egitean, lanaren bitartez auto-errealizatzea posible dela ematen du. Bainan auto-errealizazioaren ideiak beste aurpegi bat erakusten du. Batek gustukoa duen horretan aritzeko beta duenean, lantokiko giroa atsegina denean, ordutegia nahi eran antolatzeke modua duenean, norberak nahi duen bezala janzteko aukera duenean, jolastu, musika entzun eta atsedena hartzeko tarteak dituen, fabrika ez bezala, diziplina eta kontrolaren nozioak desagertu egiten direla ematen du. Langilea lanean gustura dagoenean, askoz handiagoa bihurtzen da lanarekiko identifikazioa, motibazioa, inplikazioa, eta beraz lanari denbora gehiago eskaintzeko aukerak ugaritu egiten dira. Finean subjektibitatea handitzen da, eta normalean baino ordu gehiago sartu arren, langilea gustura aurkitzen da. Lana desatsegina balitz, esplotatutako langile baten moduan sentitu, eta lanaren aurkako jarrera berehala agertuko litzateke. Artearen esparruan jakina den moduan ordea, lana, auto-errealizazio, garapen pertsonal, kreatibitate eta berrikuntzaren kontzeptuez lagunduta aurkezten denean, nahiz eta baldintza prekarioenetan gauzatu, esplotaziotzat ulertzetik onartzera pasatzen da (Rowan, 2010).

Malgutasunaren kapitalismoan, langileak aldaketara irekia egon behar du, arriskuak bere gain hartzea, eta etorkizun hurbilean zer izango denaren ezjakintasunarekin bizitzera. Egoera horrek egonkortasun eza, beldurra, depresioa, estresa, antsietatea eta izaeraren korrosioa eragiten ditu (Sennett, 2000). Ez dago deskantsurako tarterik lehiakortasuna arau den ekonomian. Kapital ekonomiko eta kulturalaz gain, ikusgarritasuna eta arrakasta bermatzeko, ezinbestekoa da kapital sozialaren metaketa (Bourdieu, 2000), eta horretarako 24 ordu 7 egun astean aktibo, eguneratuta, konektaturik egon behar da. Lana bizitza eta bizitza lan bihurtzen denean, bizitzari errentagarritasuna atera beharrean suertatzen den subjektua bizitzaren jabe den arren, ez da bizi, eta hiperaktibitatearen eraginez nekearen subjektua bihurtzen da azkenerako. *Do it Yourself* da kontsigna produktibo berria (Peran, 2016). Auto-errealizazioa helburu duen indibidualizatutako subjektua, lana eta bizitza sortu eta garatzeko onartzen dituen baldintzak direla eta, ondorez berrien eraginez ahuldutako biktima bihurtu da:

“El efecto último del programa Do it y su imperativo de autorrealización es la fatiga. A pesar de las promesas de libertad, prosperidad y felicidad que acompañan al programa, la hiperactividad incesante y la amenaza del fracaso no hacen sino alimentar el colapso y el miedo hasta niveles crónicos. ‘La fatiga de ser uno mismo’ se ha generalizado. El sujeto de la autoproducción acaba por convertirse en el individuo más vulnerable. Si antes las patologías neuróticas procedían de la represión de nuestros impulsos, hoy obedecen a la imposibilidad de sostener una vida obligada a rentabilizarlos constantemente.” (Peran, 2016).

Lanaren bitartez auto-errealizatzea sustatzen duen ideologiak, ni-a etengabe lanean jartzea exijitzen du. Neoliberalismoarekin esplotazioa auto-esplotazio bihurtu da, eta hau askatasun sentimendu batez lagunduta doanez, kanpotik ezartzen dena baino eraginkorragoa suertatzen da (Chul-Hang, 2016b). Lan egitera derrigortzen duen nagusirik izan ez arren, bere borondatez maite duen jardura horretan gorputz eta arima inplikatzeko den errendimenduaren subjektuak (Chul-Hang, 2016a), bere burua esplotatzen amaitzen du, auto-esplotatzen. Askatasunak barne indarkeriaren forma hartzen du orduan, eta subjektuak aske dela pentsatzen duen arren, esklabu izaten jarraitzen du. Kanpotik zetorren indarkeriaz libratu da, baina orain biolentzia barrenetik dator. Ez dagoela lehen bezala langilea mendean hartzen duen esplotatzailerik esaten da, auto-errealizazioaren aldeko hautua egiten denean. Ez dagoela esplotatuak elkartu eta esplotatzailearen aurka egiteko aukerarik ere entzuten da, norbera dela bere bakardadean bere egoeraren erantzule bakarra sinetsi arazten zaionean. Langilea, langile eta enpresari bihurtzean, hau da esplotatu eta esplotatzaile, egoera korapilatsu eta kontraesankorrean aurkitzen da, eta bere buruaren aurka egiten amaitzen du. Eredu neoliberalen, lanak ez duela bat aske egiten ondorioztatu daiteke hortaz, ezta arte praktikari lotutako auto-errealizazioaren promesarekin datorrenean ere.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Hurrengo hamarkadetan, lanaren munduak, eta ondorioz artearen esparruak, aldaketa garrantzitsuak biziko dituztela dirudi. Alde batetik, lanaren amaieraren iragarpena egiten duten utopista teknologikoen diskurtsoekin egiten dugu topo. *Internet*, automatizazioa, robotika, inteligentzia artifiziala eta bestelako aurrerapenei esker, orain egiten diren lan asko eta asko desagertzeko bidean direla aipatzen da. Langabetu masa erraldoiak sortuko dira prozesu horren eraginez, eta egoera horrek lanaren amaiera hezur-haragitzeko posibilitatea irekitzen du. Beste alde batetik berriz, etengabeko hazkundean oinarritzen den ekonomia kapitalista, eredu propioaren barne kontraesanak, errekurtso naturalen eskasia edo klima aldaketa medio, kolapsorako bidean dagoela esaten da. Urgentziatzko konponbide modura, produktibitatea eta kontsumoaren murrizketa planteatzen da, lanaren ber-antolaketa eta banaketarekin batera. Etorkizunean zer izango den aurreratzea konplexua bezain arriskutsua suertatzen da. Baina bai diagnosi bat zein bestea zuzenak badira, eta bizitza soldatapeko lanaren menpekotasunetik libratzea lortzen bada, auto-errealizazioaren promesarentzako eta arte praktikarentzako aukera berriak irekitzen direla zalantzarik ez dago.

6. Erreferentziak

- Brea, J. L. (2008): *El tercer umbral. Estatutos de las prácticas artísticas en la era del capitalismo cultural*. Cendeac, Murtzia.
- Boltanski, L. eta Chiapello, E. (2002): *E. El nuevo espíritu del capitalismo*. Akal, Madril.
- Bourdieu, P. (1995): *Las reglas del arte. Génesis y estructura del campo literario*. Anagrama, Bartzelona.
- Bourdieu, P. (2000): *Poder, derecho y clases sociales*. Desclée de Brower, Bilbo.
- Bourdieu, P. (2010): *El sentido social del gusto*. Siglo Veintiuno, Buenos Aires.
- Chul-Hang, B. (2016): *La sociedad del cansancio*. Herder, Bartzelona.
- Chul-Hang, B. (2016): *Psicopolítica*. Herder, Bartzelona.
- Crary, J. (2015): *24/7. El capitalismo al asalto del sueño*. Planeta, Bartzelona.
- Federici, S. (2004): *Calibán y la bruja. Mujeres, cuerpo y acumulación originaria*. Traficantes de sueños, Madril.
- Florida, R. (2010): *La clase creativa. La transformación de la cultura del trabajo y el ocio en el siglo XXI*. Paidós, Bartzelona.
- Foucault, M. (2002): *Vigilar y castigar. Nacimiento de la prisión*. Siglo XXI, Argentina.
- Fromm, E. (2001): *Marx y su concepto del hombre*. Fondo de Cultura Económica, Mexiko.
- Debord, G. (2010): *La sociedad del espectáculo*. Pre-Textos, Balentzia.
- Galafate, C. (2016): La tendencia 'before work' llega a España, *El Mundo*. Iturria: <http://www.elmundo.es/vida-sana/estilo-y-gastro/2016/02/29/56d40be2e2704e4d238b45ff.html> Azken sarrera: 2017/04/23.
- Jameson, F. (2002): *El giro cultural. Escritos seleccionados sobre el posmodernismo 1983-1998*. Manantial, Buenos Aires.
- Klein, N. (2007): *No Logo. El poder de las marcas*. Paidós Ibérica, Bartzelona.
- Lazzarato, M. eta Negri, A. (2006): Trabajo inmaterial y subjetividad kapitulutik. *Brumaria 7. Arte, máquinas, trabajo inmaterial*. Egile anitz. Brumaria, Madril.
- Lipovetsky, G. eta Serroy, J. (2015): *La estetización del mundo. Vivir en la época del capitalismo artístico*. Anagrama, Bartzelona.
- Lorey, I. (2008): Gubernamentalidad y precarización de sí. Sobre la normalización de los productores y las productoras culturales kapitulutik. *Producción cultural y prácticas instituyentes Líneas de ruptura en la crítica institucional*. Egile anitz. Traficantes de sueños, Madril.
- Marcus, G. (2011): *Rastros de carmín. Una historia secreta del siglo XX*. Anagrama, Bartzelona.

- Marx, K. (1985): *Manuscritos: economía y filosofía*. Alianza, Madril.
- Marx, K. (2017): *El Capital. Crítica de la economía política*. Libro primero. Siglo XXI, Madril.
- Méda, D. (1998): *El trabajo. Un valor en peligro de extinción*. Gedisa, Bartzelona.
- Negri, T. (1992): *Fin de siglo*. Paidós, Bartzelona.
- Peran, M. (2016): *Indisposición general. Ensayo sobre la fatiga*. Hiru, Hondarribia.
- Rowan, J. (2010): *Emprendizajes en cultura. Discursos, instituciones y contradicciones de la empresarialidad cultural*. Traficantes de Sueños, Madril.
- Sennett, R. (2000): *La corrosión del carácter. Las consecuencias personales del trabajo en el nuevo capitalismo*. Anagrama, Bartzelona.
- Von Osten, M. (2008): Salidas Incalculables kapitulutik. *Producción cultural y prácticas instituyentes. Líneas de ruptura en la práctica institucional*. Egile anitz. Traficantes de sueños, Madril.
- YProductions (2009): *Innovación en cultura. Una introducción crítica a la genealogía y usos del concepto*. Traficantes de sueños, Madril.
- Yúdice, G. (2002): *La cultura como recurso. Usos de la cultura en la era global*. Gedisa, Bartzelona.

7. Eskerrak eta oharrak

UPV/EHUren doktorego programari esker gauzatzen ari naizen ikerketaren zenbait ideia biltzen ditu artikulu honek. Zuzendari lanetan dabilen Arantza Lauzirika Moreari nire esker ona azaltzeko aprobetxatu nahi dut tarte hau.